

Martin Ugalde eta tsarraren mezularia

Iñigo Aranbarri

Egunero, 2003-02-26: 14.

Tsarraren mezulariak zaldi zilarra pelotoiaren aurrean geldiarazten duelarik, elur zapastek lohitu dituzte presoak. Tiro egiteko gertu zeuden fusilak makurtu egin dira, eta mezularia pelotoiburuarekin mintzatzen ikusi dute basoan pilaturiko gizonek. "Dostoievski! Fiodr Dostoievski!", egin du deihadar pelotoiburuak. Presoa taldetik atera dute. Ez ditu ehun metro egin armen kraka hotsa entzun duenerako. Elurra gorritz zikindu da, eta libratu izanak ez du idazlea poztu. Dagoen eta kondenarik handiena da lagunak hiltzen ikusi eta norbera bizirik uztea, pentsatu du.

Tsarraren mezulariaren zorroak horrelako hamaika mezu du. Hauetan araka eman ditut azken hilabeteak. Hori izan dut demetako bat, nagusiena. Boterearen hizkeraren makurra erakustea, handiaren maltzurkeria, sentimenduetatik barik, arrazoitik biluztea. Obsesio bilakatu zait txikiaren kontra darabilen makinaren barrunbeak ezagutzea. Erlojugile artatsuak nola, hitzak banan bana askatu, eta akatsa aurkitzen laketu izan naiz. Eta ezinbestean, gure baldarkeriekin samurtu. Ez dut beti nahi izan dudana iritsi, eta usu, herren iritsi naiz. Inoiz, bihotzak saldu nau. Horra zertan joan zaizkidan igandeetako Seiko Urreak.

Tsarraren mezularia EGUNKARIA giltzatzeko manuarekin heldu delarik, boterearen logikak ez du zer aztertu. Makina ezin sinpleagoa da: epaileak Barne Ministerioan idatzi du tsarraren agindua. Eta erlojugile lanak utzita, jendearen adierazpenetan bildu nahiz. Begiak bete zaizkit irakurri ditudan animo berbeekin. Negar egin dut hauen ahotsak entzunda. Ez da normala. Ez da normala hizkuntza batengatik jendeak negar egitea. Ez genuen adostu hizkuntza komunikatzeko tresna huts dela ala? Aspaldi sentitzen ez nuen emozioak mozkortu nau. Hoztu hadi, esan diot neure buruari. Emozio honek, indar honek guztiak zerbaiten hasiera behar du!

Tsarraren mezularia bere zaldi zilarrean heldu da. EGUNKARIAko *kupula* atxilotu dutelarik (sin *El Mundo*-ko edizio digitalean ostegun goizean. Zein traidorea den hizkera!), pelotoiburuarekin hitz egin eta Martin Ugalde kondenatuen multzotik ateratzeko agindua eman du. Paira dezala zer den adiskideak zaldi zilarrean gainean epailearengana eramatea bere etxean uzten dutela. Eta idazleari, begiak bete zaizkio. Iraganak, lagunero oroimenak egin dio bisita.

Tsarraren mezularia handik egun batzuetara itzuli da, ordea, bere zaldi zilarrean. Hitz ikaragarriagoak dakartza oraingoan mezuan: espetxea, ospitalea, isolamendua... Idazleak begiak beterik ditu oraindik, baina tupustean, mezulariak ulertu ez duen irribarre gaizto-tristea egin du. Dostoievskiren Siberian bezala, elurra da Larrantzen. Joxemi Zumalaberen hautsen bila imajinatu ditu, hauek bildu, eta eskuburdinak jarrita, ministroarenean bazkaltzen duen epailearen aurrera eramateko.